


## Alderdi politikoak dira gazteengan konfiantza txikien sortarazten duten erakundeak

### **Azken hamar urteotan jaitsi da gazteek justizian eta sindikatuetan duten konfiantza**


Herritarrok hainbat erakundetan dugun konfiantza ezagutarazi du [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) bere azken ikerketan ([55. Euskal Soziometroa](#)). Gazteen Euskal Behatokitik 18 eta 29 urte bitarteko gazteei dagozkien datuak plazaratu nahi ditugu eta, era berean, 18 urtetik gorako biztanleria osoakin konparatu datuok, bai eta gazteen iritziak azken hamar urteotan izandako bilakaera aztertu ere (horretarako 2004ko [25. Euskal Soziometroan](#) jasotako emaitzak hartu ditugu oinarri).

Gobernuz Kanpoko Erakundeak eta Eusko Jaurlaritza dira gazteengan konfiantza handien sortarazten duten erakundeak (gazteen % 65ek eta % 64k, hurrenez hurren, dute konfiantza erakunde horietan). Erdiak baino gehixeagok (% 52k) Eusko Legebiltzarrean konfiantza dutela diote. Herenak baino gehiagok dute konfiantza Europar Batasunean (% 39k) eta sindikatuetan (% 38k); laurdenak baino gehixeagok justizia epaitegietan (% 26); eta are gutxiago dira elizan edo alderdi politikoetan konfiantza dutenak (%18 eta % 12, hurrenez hurren).

Biztanleria osoarekin konparatuz gero, ikus daiteke gazteek biztanleriaren batz bestekoak baino konfiantza handiagoa dutela sindikatuetan (% 38 eta % 28, hurrenez hurren) baina biztanleria osoak baino konfiantza txikiagoa dutela elizan (gazteen % 18k eta biztanleria heldu osoaren % 29k dute konfiantza erakunde horretan).



Azken hamar urteotan izandako bilakaerari erreparatuz gero, ikus dezakegu gutxitu egin dela sindikatuetan konfiantza duten gazteen ehunekoa (% 47, 2004an, eta % 38, 2014an), baita justizia epaitegietan konfiantza dutenena ere (% 31tik % 26ra pasatu da). Aitzitik, gazteek Eusko Jaurlaritzan duten konfiantza handitu da hamar urte hauetan (% 56tik % 64ra).



**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**

